

Topalekua

51zk. 2009ko martxoa

marzo 2009 - n.º 51

orr. 1, 2, 3 eta 4: *Gizarte kontseiluak kontuak emateko adierazleen sistema*

bat definitu du UPV/EHU-ren gizarte helburuak noraino lortu diren neurtzeko

20 adierazlez osatutako bateria batek hobekuntzak identifikatzea, helburuak lortzen diren egiaztatzea eta emaitzak zein haien eboluzioa beste Unibertsitateenekin alderatzea ahalbidetuko du

GIZARTE KONTSEILUAK KONTUAK EMATEKO ADIERAZLEEN SISTEMA BAT DEFINITU DU UPV/EHU-ren GIZARTE HELBURUAK NORAINO LORTU DIREN NEURTZEKO

Gaur, Bilbon, ospatu den Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak UPV/EHU-ren gizarte helburuak kontuak organo horri emateko betebeharren esparruan noraino betetzen diren neurtzeko baliagarria izango den adierazleen sistema definitu du. Onartu den sistemak unibertsitateko zerbitzuen jarduera ebaluatzea eta antzeko ezaugarriak dituzten unibertsitateenekin alderatzea ahalbidetuko duen adierazleen bateria identifikatu du.

Helburua gizarteari UPV/EHU-ren helburuak noraino betetzen diren eta hark egindako ekarpena zein den jakinaraztea da. Egun, informazio ugari dago, baina datuak ez dira hiritarren interesen edo kezken ikuspuntutik erabiltzen edo aurkezten. Adierazleen sistema honen helburua “lehenetasuneko arreta” behar duten arloak identifikatzeko esfortzua nagusi bilakatzea da, Gizarteari kontuak emateko ikuspegitik eta adituak ez direnek ere uler dezaten modu sinplean eta alderatuz emaitzak aurkeztea.

Aipaturiko adierazteen sistema definitzeko, Estatu Batuetako, Kanadako, Erresuma Batuko, Greziako eta Espainiako unibertsitateek eta erakundeek jarraitzen dituzten ereduak aztertu dira, eta sakonean aztertu dira Euskal Herriko Unibertsitateak jadanik erabiltzen dituzten adierazleen sistemak. Emaitza gisa, funtsezkoak edo beharrezkoak gisa identifikatu dira 20 adierazle (jatorrizko baldintza kopurua oso mugatua izatea zen), hiru irizpide nagusi jarraitzen dutenak:

- Gizartearen eta interesei eta kezkei erantzuten diete.
- Haien esperientziaren ondorioz erreferentzia gisa erabil daitezkeen kontuak emateko eskema gehienetan dauden adierazleak dira.
- UPV/EHU-ren Plan Estrategikoan zehazki formulatutako helburuei erantzuten diete.

Lortutako adierazleen bateriak UPV/EHU-ren irudi fidakorra eskainiko du zortzi arlo nagusitan kontuak emateko orduan:

Testuingurua	• Finantzazioa - Baliabideak • Gastua	Ikerketa	• Ikerketaren jarraitutasuna eta Kalitatea • Ikerketaren finantzazio pribatua
Erakunde-aren irudia	• Gizartearen onarpena • Prestigio akademikoa • Erakargarritasuna	Hizkuntza normalizazioa	• Gizartearekin duen konpromisoa euskara arloan
Estaldura	• UPV-aren kaptazio-maila	Gizarte Erantzukizuna	• Gizartearekin duen konpromisoa aukera berdintasun arloan
Trebakuntza	• Lortutako emaitzak • Heziketa-prozesuaren efizientzia		
Inguruari egokitzea	• Enpresarien asebetetzea • Enpleguetara egokitze gaitasuna		

(2., 3. eta 4. orrietan jarraitzen du)

Arlo horietako bakoitzarentzat adierazle bat edo gehiago aukeratu dira:

ÁMBITO	ADIERAZLEA	DEFINIZIOA
TESTUINGURUA-BALIABIDEAK	1. Transferentzia arruntak/ Gastu arruntak	Unibertsitateak diru-sarrera gisa jasotako transferentzia arruntan eta haren gastu arruntan arteko erlazioa (%)
	2. Gastu arrunta ikasle bakoitzeko	UPV/EHU-k urtean duen gastu arruntaren eta matrikulatu diren ikasleen kopuru osoaren arteko erlazioa (euro)
INSTITUZIOAREN IRUDIA/ PRESTIGIOA	3. Euskal Gizarteak UPV/EHU-ren inguruan duen iritzia	Jasotako kalifikazio onen proportzioa, hau da, UPV/EHU-ren irudi publikoa <i>oso ona</i> edo <i>nahiko ona</i> dela diotenak (%)
	4. Kalitatea goraipatutako doktoretza programak	Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako kalitatearen goraipamena duten doktoretza programen kopurua
	5. Atzerriko unibertsitateetatik datozen ikasleen tasa	EHU-n graduondoko ikasketetan matrikulatu diren atzerriko unibertsitateetatik datozen ikasle-kopuruaren eta graduondoko ikasketetan matrikulatu diren ikasle-kopuru osoaren arteko erlazioa (%)
ESTALDURA	6. UPV/EHU-ren estaldura-tasa	UPV/EHU-ren lehen ikasmailan matrikulatutako ikasle-kopuruaren eta Euskal Herriko unibertsitateetan ikasketak burutzen ari direnen kopuru osoaren arteko portzentajea (%)
TREBAKUNTZA	7. Uzte-tasa	Unibertsitatera sartu berri diren ikasle kopuru osoaren eta azken bi urteetan matrikulatu ez direnen arteko portzentajeen erlazioa (%)
	8. Etekin-tasa	Gainditutako kredituen kopuruaren (egokituak, baliozkotuak, onartutakoak, etab. ezik) eta matrikulatu diren ikasketetako kredituen kopuruaren portzentajeen erlazioa (%)
	9. Graduazio-tasa	Titulua bere garaian lortu duten ikasleen portzentajea da.
	10. Enpresetan praktikak egin dutenen tasa	Enpresetan praktikak egiten diharduten ikasleen eta matrikulatutako ikasleen kopuru osoaren arteko portzentajeen erlazioa.
INGURUKO BEHARREI EGOKITZEA	11. Lana ematen duen taldearen arabera trebakuntzaren balorazioa	Enplegua ematen dutenek kontratatutako unibertsitateko tituludunen trebakuntza teorikoa, praktikoa eta haien gaitasunak baloratzeko ematen dituzten batez besteko puntuak (0-10 puntu):
	12. Sartutako enplegu-tasa	Titulatu zirenetik hiru urte igarotakoan sartutako enplegu batean lanean diharduten unibertsitateko tituludunen portzentajea (%). Sartutako enplegua: unibertsitateko mailari dagozkien enpleguak (diplomaturak, lizentziaturak eta ingeniariitzak).
	13. Lehen enplegua lortu arte igarotako denbora	Titulua lortu denetik lehen enplegua lortu arte igaro den denbora (hileak)
IKERKUNTZA	14. Ikerkuntzarako zuzenean kontratatu izanaren ondorioz lortutako diru-sarrerak	Ikerkuntza zerbitzuetatik zuzenean kontratatutakoaren ondoriozko diru-sarreraren eta Unibertsitateak ikerkuntzari zuzendutako funtsen zenbateko osoaren arteko portzentajeen erlazioa.
	15. Doktorego-tesien ekoizpena	Urtean irakurritako tesien kopurua
	16. Patenteen ekoizpena	Urtean erregistratu diren patenteen kopurua
	17. Ekoizpen zientifikoa	Science Citation Indexean eta Social Science Citation Indexean erregistratu diren argitalpenen kopurua.
HIZKUNTZA NORMALIZAIZOA	18. Lehen zikloko euskarazko kredituen tasa	Euskaraz egin daitezkeen kredituen eta Ikasketa Planaren kredituen kopuru osoaren arteko portzentajezko erlazioa (%)
GIZARTE ERANTZUKIZUNA	19. Ikasle minusbaliatuen tasa	Ezintasunen bat duten ikasleen eta UPV/EHU-ko ikasleen kopuru osoaren arteko portzentajezko erlazioa (%)
	20. Graduiko ikasketetan matrikulatutako emakumezko ikasleen tasa	UPV/EHU-n matrikulatutako emakumezkoen eta graduiko ikasketetan matrikulatutako ikasleen kopuru osoaren arteko portzentajezko erlazioa.

Argi dagoenez, aukeratze horrek jardueraren eta UOV/EHU-ren emaitzen inguruan interesgarriak diren beste hainbat adierazle uzten ditu kanpoan. Horregatik, Gizarte Kontseiluak aukeratu duen ereduak zortzi arlo nagusietako bigarren mailako beste hamar adierazle biltzen ditu, kontuan hartzeko informazioa ekartzen duena:

Testuingurua-Baliabideak: 21. UPV/EHU-ren gastu publikoa BPG-arekiko

Estaldura: 22. Selektibitatea gainditu duten ikasleekiko UPV/EHU-n matrikulatu diren ikasleen proportzioa

Sartzeko Profila: 23. Bokaziozko matrikulen tasa / 24. Unibertsitateko orientazioaren kalitatea

Trebakuntza: 25. Irakasle eta ikertzaile doktoreak direnen tasa / 26. Emandako seiurtekoen proportzioa / 27. Irakasleen asebetetze-maila

Inguruari Egokitzea: 28. Egindako ikasketekin asebetetzea (unibertsitateetatik irten direnak) / 29. Etengabeko prestakuntzaren intzidentzia

Gizarte Erantzukizuna: Emakumezkoen BGP tasa

Sistema hori aplikatuz eta aukeratutako adierazleak sistematikoki jarraituz, denboran zehar adierazle horiek hobetzen doazen, haien inguruan zehaztutako helburuetara hurbiltzen ari diren eta erreferentziako beste Unibertsitateen eboluzioarekin batera doazen ikusi ahal izango dute bai Gizarte Kontseiluak bai Unibertsitateak.

Fitxa deskribatzaileak

UPV/EHU-ren adierazle gakoak aukeratzea aspalditik lantzen ari denildoaren lehen urratsa besterik ez da. Horrek, aukeratutako adierazleen inguruan lortu nahi diren helburuak argi eta garbi zehazten lagundu beharko luke, bai hasieran adierazitakoak, bai beranduago barnera daitezkeenak.

Gainera, onartu den sistemak adierazle bakoitza deskribatzen duten fitxen multzo bat dauka eta, besteak beste, honako galderei erantzuten diete: zein eremuri dagokion bakoitza (baliabideak, prestigioa, trebakuntza, beharrei egokitzea, etab.), haien definizioa (kalkulatzeko formula), zein aldagaik parte hartzen duten, nolako desmultzokatze-maila duten, edo haien eskuragarritasuna (data/ikasturtea), gizartearen zein galderei erantzuten dieten, eta abar. 20 fitxa horietatik lau azalduko ditugu jarraian, adibide gisa:

EREMUA: TESTUINGURUA-BALIABIDEAK		2. adierazlea
IZENA:		Gastu arrunta ikasle bakoitzeko
DEFINIZIOA:		
UPV/EHUren urteko gastu arruntaren (eurotan) eta matrikulatutako graduiko ikasleen kopuru osoaren arteko erlazioa.		
	UPV/EHUren gastu arruntak Matrikulatutako ikasleen kopuru osoa	
ERAGINA DUTEN ALDAGAIK:		
■ Gastu arruntak ■ Matrikulatutako ikasleen kopuru osoa		
DESMULTZOKATZE-MAILA:	ITURRIA:	ESKURAGARRITASUNA:
■ UPV/EHU	■ Unibertsitatearen zenbakiak	■ 2007/2008 ikasturtea
GIZARTEAREN ZEIN GALDERARI ERANTZUTEN DION		
Zenbatekoa da Euskal Herriko Unibertsitatearen gastua ikasle bakoitzeko? Erakundeen artean alderatzea ahalbidetzen duen adierazlea da. Unibertsitateko eskaintzan irakasteari aurrekontuko zenbat ematen dion adierazten du.		

EREMUA: TREBAKUNTZA		10. adierazlea
IZENA:		Enpresetan praktikak egin dutenen tasa
DEFINIZIOA:		
Enpresetan praktikak egiten diharduten ikasleen eta matrikulatutako ikasleen kopuru osoaren arteko portzentajearen erlazioa.		
	$\frac{\text{Enpresetan praktikak egiten diharduten ikasleen kopurua}}{\text{Matrikulatutako ikasleen kopuru osoa}} \times 100$	
ERAGINA DUTEN ALDAGAIK:		
X urte baterako: ■ X urtean enpresan praktikak egiten diharduten ikasleen kopurua. ■ X urtean matrikulatutako ikasleen kopuru osoa.		
DESMULTZOKATZE-MAILA:	ITURRIA:	ESKURAGARRITASUNA:
■ Ezagutza-eremuaren arabera ■ Tituluaren arabera	■ Unibertsitatearen zenbakiak.	■ 2007/2008 ikasturtea
GIZARTEAREN ZEIN GALDERARI ERANTZUTEN DION		
Nahikoa prestatzen al dira ikasleak lan merkatuan barneratzeko? Enpresetan praktikak egiteak ikasleak hobeto trebatzen ditu eta lan munduaren ikuspegi hurbilagoa ematen die. Horrek, Unibertsitatean jasotako trebakuntza osatzen du eta lanean hasteko hobeto gaitzen ditu.		

EREMUA:	ENPLEGUA LORTZEKO GAITASUNA	12. adierazlea
IZENA:	Sartutako enplegu-tasa	
DEFINIZIOA:		
“x-3” urtean unibertsitateko titulua lortu eta x urtean lortu duten enplegu batean lanean diharduten tituludunen eta “x-3” urtean unibertsitateko titulua lortu eta x urtean okupatuta dauden ikasle-kopuru osoaren arteko erlazioa. Sartutako enplegua: unibertsitateko mailari dagozkien enpleguak (diplomaturak, lizentziaturak eta ingeniariak).		
	Sartutako enplegu batean lanean diharduten x-3 urteko tituludunen kopurua x-3 urtean graduatu diren ikasleen kopuru osoa” x 100	
ERAGINA DUTEN ALDAGAIK:		
X urte baterako: ■ X urtean lanean diharduten eta (x-3) urtean atera ziren ikasle-kopurua. ■ X urtean”sartutako lan batean” diharduten eta (x-3) urtean atera ziren ikasle-kopurua. ■ x-3 urtean graduatu diren ikasleen kopuru osoa		
DESMULTZOKATZE-MAILA:	ITURRIA:	ESKURAGARRITASUNA:
■ Ezagutza-eremuaren arabera ■ Tituluaren arabera	■ LANBIDE inkesta	■ 2007 bukaerako inkesta (2004an atera zirenak)
GIZARTEAREN ZEIN GALDERARI ERANTZUTEN DION		
Zein motatako enplegua dute unibertsitateak atera direnek? Beraien titulazioari dagozkien lanpostuak al dituzte? Unibertsitatearen jardueraren helburu nagusienetarikoa bat profesional onak trebatzea da, lanean azkar eta behar bezala has daitezkeenak. Beraz, helburua ez litzateke bakarrik lanpostu bat lortzea izango, lana haiek ikasitakoari egokitzea ere, baizik, hau da, “sartutako enplegua”.		

EREMUA:	IKERKUNTZA	14. adierazlea
IZENA:	Ikerkuntzarako zuzenean kontratatatu izanaren ondorioz lortutako diru-sarrerak	
DEFINIZIOA:		
Ikerkuntza zerbitzuetatik zuzenean kontratatutakoaren ondoriozko diru-sarreraren eta Unibertsitateak ikerkuntzari zuzendutako funtsen zenbateko osoaren arteko portzentajeen erlazioa.		
	$\frac{\text{Zuzenean kontratatutakoaren ondoriozko ikerketako diru-sarrerak}}{\text{UPV/EHUK ikerketari zuzendutako funtsen zenbateko osoa}} \times 100$	
ERAGINA DUTEN ALDAGAIK:		
X urte baterako:		
■ Zuzenean kontratatutakoaren ondoriozko ikerketako diru-sarrerak ■ UPV/EHUK ikerketari zuzendutako funtsen zenbateko osoa		
DESMULTZOKATZE-MAILA:	ITURRIA:	ESKURAGARRITASUNA:
■ Ezagutza-eremuaren arabera	■ Unibertsitatearen zenbakiak	■ 2006/2007 ikasturtea
GIZARTEAREN ZEIN GALDERARI ERANTZUTEN DION		
Norainoko diru-sarrerak lortzen ditu Unibertsitateak ikerketa-kontratuen bidez?		
Unibertsitatearen ikerketa-jarduerak burutzeko funtsak erakundeetatik datoz, baina baita zuzeneko kontratuen bidez ere.		
Adierazle horren helburua Unibertsitateak bide horretatik, kontratu bidez eskaintzen dituen ikerketa-zerbitzuei esker, zein diru-sarrera lortzen dituen jakitea da.		

Kontseiluaren Plan Estrategikoaren Jarraipena

Gizarte Kontseiluaren 2007-2010 Plan Estrategikoaren aplikazio-maila aztertu du Osoko Bilkurak eta jadanik burutu diren lau proiektu eguneratzea adostu du: UPV/EHU-ren Urtekari Estatistikoa, Unibertsitatearen Ikerketa Produktuak eta Zerbitzuak, Enpleguaren Behatokia eta jardueraren Adierazleen Sistema. Gainera, 2009rako lehentasunak zehaztu dira, Unibertsitatearen funtzio soziala eta euskal gizartearen garapen sozioekonomikoan laguntzen duena jakinaraztea, ikasleen praktikak hobetzea, UPV/EHU-k sortutako ikerketaren emaitzak jakinaraztea, Unibertsitatearen lerro estrategikoak lortzen lagunduko duten unibertsitate ereduak identifikatzea eta Europako hezkuntzaren espazio berritik ateratako ikasleen gaitasunen inplementazioa indartzea, besteak beste.

Errekurtsoak

Osoko Bilkurak ebatzi du, baita ere, administrazioak 2007ko urtarrilaren 26ko Deialdiaren arabera egindako ordainsari osagarrien ebaluazioaren aurrean eser esan ez zuela eta, unibertsitateko irakasleek aurkeztutako errekurtsioak ez onartzea, administrazioaren isil hori ez baita Kontseiluaren erruz izan, Ebaluazioko Agentziaren erruz baizik (UNIQUEL). Kontseiluak esleipenean bakarrik da eskuduna.

Gainera, Kontseiluak haien osagarrien onarpen-datan edo merituen ebaluazioan akatsak edo aldaketak egon direnean bakarrik, edozein zirkunstantzia medio, onartu du osagarrien esleipena aldatzea.

Azkenik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasle izateko Masterrak barnera dezala Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailari eskatzea onartu du Osoko Bilkurak.